

**IRITZIA | 9**

Osakidetzako Laneko Osasuna  
2012an: 18001 OHSAS ziurtagiria

**GURE ELKARTEAK | 12-13**

Afagi elkarteak

**GERTUTIK | 18-19**

Aitziber Garmendia

**EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21**

Euskaraz egiteko oztopo  
eta lotsak gaitzitzeko mintzalagun taldea



## GURUTZETAKO OSPITALEKO PEDIATRIAKO LARRIALDIAK

KALITATEAN ETA HOBEKUNTZAN LANEAN | 5-8

## SALBUESPENEN DEKRETUA

Joan den apirilaren 16an argitaratu zen salbuespenen Dekretua, alegia, ikasketa akademikoak euskaraz egiteagatik ikasleei euskara gaitasun jakin bat aitortzen dien arau testua. Estatuan hizkuntza ofizial bi dituzten beste erkidego batzuetan dagoeneko indarrean izan dituzte antzeko arauak.

Osakidetzako lanpostu gehienek 2. hizkuntza eskakizuna dute esleituta eta, Dekretu horren arabera, batxilergoaren pareko ikasketak euskaraz eginez gero (titulazio horiei dagozkien ikasketen curriculum osoaren % 50 baino gehiago euskaraz) aitortuta izango dute 2HE edo Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko B2 mailaren pareko euskarazko hizkuntza-gaitasuna. Salbuespen hitza aukeratu da gaztelaniazko ikasketak egitearekin parekatzeko, baina praktikan, administrazioan baliokidetzat balitz legez jokatu da.

Hortaz, aitortutako euskara gaitasun horiek lanpostuak hor-

nitzeko prozesuetan meritu gisa hartuko dira kontuan eta, jakina, euskara jakitea baldintza den kasuetan lanpostuok betetzeko ere balioko dute aitortza horiek. Arau hau atzera eraginez aplikatuko da, hain zuzen ere 2008ko apirilaren 15etik aurrera eskuratutako tituluak barne hartzen ditu eta ikasketak zentroak arduratuko dira ziurtasunak emateaz.

Nolabait esan liteke arau honen bitartez borobildu dela edo dagoen lekua aitortu zaiela euskarazko ikasketei eta, ondorioz, arau honek bultzatuta sendotasunez hedatuko da euskara lerroa ikasketak zentroetan, izan ere, lerro bat edo beste aukeratzeko motibazio pragmatikoa duten guraso/ikasleek arau berri hau hartuko dute kontuan.

Horren haritik, epe ertainera Osakidetzako euskara gaitasun ikastaroetan eta euskara probetan gero eta profesional gutxiagok parte hartuko du eta gaur egun arlo bi

horiek duten neurritz kanpoko garrantzia apalduz joango da.

Espero dugu arau berri honek eragina izatea Osakidetzak lehentasunezko hartzen dituen kategorian profesionalen ikasketak egingo dituzten ikasleen hizkuntza aukeran, alegia, euskara lerroen aldeko hautua egin dezatela.

“Espero dugu arau berri honek eragina izatea Osakidetzak lehentasunezko hartzen dituen kategorian profesionalen ikasketak egingo dituzten ikasleen hizkuntza aukeran, alegia, euskara lerroen aldeko hautua egin dezatela”.



## APIRILA

## 2.0 INGURUNRTIK OSASUNEAN ERAGITEKO GAITASUNA

2012, apirilak 26  
(17:00etatik 19:30era)  
Areiltzako aretoa I, 6. solairua  
Bizkaiko Sendagileen Elkargo Ofiziala.  
Lersundi kaleko 9. zk. -  
48009 BILBO

Web orria: [formación sanitaria.com](http://formación sanitaria.com)

## MAIATZA

## PRAKTIKA KLINIKOETAN ALDAKUNTZEK DUTEN ERAGINARI BURUZKO JARDUNALDIA

2012, maiatzak 15  
(12:00etatik -14:30era)  
Erakunde Zentraleko areto nagusia. ( Araba 45 kalea, Gasteiz-Vitoria)

**Helburuak:**

Ulertzea Aldakuntza geografikoen zergatiak eta ondorioak ohiko praktika klinikoetan.  
EAEko prozesu ezberdinetan antzemandako aldakuntzak deskribitzea.

**Nori zuzendua:**

Osakidetzako osasun-zentroetako zuzendaritzako kideak.  
Tartean dauden espezialitateetako zerbitzuburuak (trauma, kardia, familia).

## ZELADOREEN ETA ARDURADUNEN XIII. JARDUNALDIAK OSAKIDETZAKO ZELADOREEN IV. JARDUNALDIAK

2012, maiatzak 16, 17 eta 18  
(12:00etatik -14:30era)  
Kursaal Kongresu Jauregia  
Donostia-San Sebastián

## EKAINA

## EUSKADI TABAKOAREN KETIK ASKE (1. JARDUNALDIA)

2012, ekainak 1 (8:30etik -14:30era)  
Erakunde Zentraleko areto nagusia.  
( Araba 45 kalea, Gasteiz-Vitoria)

**Argitaratzailea:**  
Osakidetza  
Araba kalea 45, 01006  
Vitoria-Gasteiz  
Tel.: 945 006 406  
[osatuberrri@osakidetza.net](mailto:osatuberrri@osakidetza.net)

**Erredakzio kontseilua:**  
Xabier Arauzo  
Juan Elorriaga

**Euskera zuzentzaileak:**  
Felix Razquin  
EMUN lana euskalduntzeko  
kooperatiba.

**Koordinatzailea:**  
Arteman Komunikazioa

**Tirada:**  
7.000 ale

**Lege gordailua:**  
SS 1472/2011

**Diseinua eta maketazioa:**  
Arteman Komunikazioa

**Azaleko argazkia:**  
Josetxo Arantzabal

**Argazkiak:**  
Arteman/Josetxo Arantzabal  
**Inprimategia:**  
Gertu (Oñati)

## Osatuberrin parte hartu nahi?

Zu ere protagonista izan zaitezke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko idatzi [osatuberrri@osakidetza.net](mailto:osatuberrri@osakidetza.net) helbidera.

**Behin batean:** herriko ambulatorioan edo ospitalean gertatutako anekdota bat edo pasarte bat baduzu guri bidaltzea baino ez duzu.

**Gure txokoa:** lantaldeen ospakizunak eta oroigarriak biltzeko atala.

**Bidaia:** kontatu bizi izandako abenturak, hala, irudikatzen eta erakusten lagunduko dizugu.

**Iradokizunak:** ezer komentatu nahi izanez gero horra gure koadernoan.

**Ezetz jakin!** : zalantzarik baduzu gurerari bidali eta erantzun zuzena ematen ahalegingiduko gara.



# AURKIBIDEA

- 2 AGENDA
- 4 JAKINBERRI:  
Azken berriak motzean
- 5|8 SAKONEAN  
 Gurutzetako Ospitaleko Pediatriako Larrialdiak
- 9 IRITZIA  
Osakidetzako Laneko Osasuna 2012an: 18001 OHSAS ziurtagiria
- 10 | 11 OSASUN URRATSAK  
Lehen Mailako Arretako euskarazko gidak: pazienteekin euskaraz egiten laguntzeko tresna erabilgarri berriak
- 12 | 13 GURE ELKARTEAK  
Afagi Elkartea
- 14 | 16 PLAZATIK  
 Bilboko Itsasadarra Itsas Museoa
- 17 ZORTZIKO TXIKIAN  
Edurne Bikuña
- 18 | 19 GERTUTIK  
Aitziber Garmendia
- 20 | 21 EUSKARA OSAKIDETZAN  
Mintzalagun taldea
- 22 ANBULATORIOAN  
Ondarroa
- 23 LANBIDEA  
Itziar Etxebarria
- 24 | 25 ATZERA BEGIRA  
Gorliz Ospitelea
- 26 OSAKIDETZAN BIZITZA  
Txango eta bertsoak, elkar ezagutzeko
- 27 TXAPELA BURUAN  
Segura

## IKERBASQUEKO KIDEAK OSASUN ALORREAN

Ikerbasqueko ikertzaileak lanean hasi dira hogeitaz irakaskuntza zentroan, EAEko teknologia erakunde eta zentroan, hiru unibertsitate barne (EHU, Deustu eta Mondragon), eta Ikerketa Zentro Kooperatiboetan (CIC) biozientzietan (BioGUNE), biomaterialetan (BionmaGUNE), nanoteknologian (NanoGune) eta mikroteknologietan (MikroGune) adituak. Baita honako hauetan ere: Biofisika Unitatea eta EHUko Materialen Fisika Zentroa, Tecnalia Teknologia korporazioa, IK4, Osasun Berrikuntza eta Ikerketaren Euskal Fundazioa, Biodonostia Institutua eta Gobernantza Demokratikoaren Institutua. Ikerbasquek 40 milioi euroko itzulkina lortu du bost urteotan; hau da, Eusko Jaurlaritzak ikertzaileak kontratatzean eginiko inbertsioa bikoiztu du.

## BIOGURUTZETA OSASUN IKERKUNTZARAKO INSTITUTUA AURKEZTU DUTE

Gurutzeta Ospitaleak zientzia eta osasuna ikertzeko helburuarekin abiarazitako Biogurutzeta Osasun Ikerkuntzarako Institutua ezagutzera eman berri dute. Aurrerapen zientifikoak asistentziako praktika medikoan aplikatu nahi dituzte, pertsonen osasuna hobetzeko.

Biogurutzetak 595 ikertzaile eta ikerkuntza proiektuetako 96 buru dituzten 73 talde zientifiko ditu lanean. Eta nazioarteko proiektu zientifiko askotan parte hartzen du; 2011n, esaterako, ikertzaileak 155 proiektutan ibili dira. Biogurutzeta erreferentzia zentroa da gaixotasun metabolikoetan, demenzietan, HRD brakiterapiako tekniketean, zein prostata eta ginekologiako minbizian. 2012an 8.200 metro koadroko eraikuntza berri bat egiten hasiko dira.

Aurkezpen ekitaldian, Osasun eta Kontsumoko sailburu Rafael Bengoa, Osasun sailburuorde Jesus Mari Fernandez, EHUko Ikerkuntzako errektoreorde Miguel Angel Gutierrez, Osakidetzako zuzendari nagusi Julian Perez eta Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko zuzendari kudeatzaile Gregorio Achutegi izan ziren, besteak beste.

## HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO 2012-II AZTERKETALDIA

Ekainaren 9an hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko 2012-II azterketaldiko proba idatziak egingo dira Barakaldoko BECen. Bertan parte hartzeko izena emateko epea apirilaren 25etik maiatzaren 4ra artekoa izango da.

Ahozko azterketak, berriz, uztailearen bigarren hamabostaldian izatea aurreikusten da. Gogoan izan bertan parte ahal izateko ezinbesteko baldintza dela Osakidetzan lanean aritzea edo aritu izana, egun batean gutxienez, 2011ko abenduaren 22tik maiatzaren 4ra bitartean. Hona hemen egutegia laburtuta:

- Izen-ematea: apirilak 24 - maiatzak 5 (Osakidetzako web-orriko Euskara atalean)
- Idatzizko azterketa: ekainak 9 (Barakaldoko BECen)
- Ahozko azterketak: uztailearen 2. hamabostaldian
- Behin betiko emaitzak: irailean



## ARAUDI BERRIA PRESTAKUNTZA ARLOAN

2011ko azken lau hilabetekoan Osakidetzako Prestakuntzako Zerbitzu Korporatiboaren erreferentziako araudia osatzeko Osakidetzako zuzendari nagusiak emandako bi ebazpen eta Giza baliabideetako zuzendariak emandako Jarraibide bat argitaratu ziren.

Ebazpen horiek prestakuntza planak oinarritzeko tresnatzat hartzen dituzte prestakuntza jarduerak planifikatzeko eta kudeatzeko; prestakuntza jardueraren mota ezberdinen esparru eta arloen arabera ordenamendua zehazten dute, eta on line prestakuntzaren inguruko kideak hartzen dira aintzat, orain arte araututa ez zeudenak, tutorea edo on line edukien sortzailea, besteak beste.

Bestalde, 2/2012 Jarraibideak mekanizatze kodifikazio bakarra sustatzen du Osakidetzako zerbitzu erakunde guztientzat, prestakuntza jardueraren zein esparru eta arlokoa den kontuan hartuta. Horri esker, etorkizunean maila korporatiboan informazioaren analisia modu bateratuan egiteko aukera egongo da. Informazio gehiagorako Osakidetzako Intraneta kontsulta daiteke.

BERRI LABURRAK



## GURUTZETAKO OSPITALEKO PEDIATRIAKO LARRIALDIK, KALITATEAN ETA HOBEKUNTZAN LANEAN

Gurutzetako Ospitaleko Pediatriako Larrialdi Zerbitzuetan urtero 63 mila kasu artatzen dituzte. Pediatriako Larrialdietan Euskal Autonomia Erkidegoko aktibitate handiena dute, eta ikerketa zein hobekuntza alorretan ere punta-puntan daude. Zerbitzua erreferentea da Euskadin, Estatuan eta Europan, eta Ameriketako Estatu Batuetan harreman sarea handitzen ari da.

**P**ediatriako Larrialdieta-ko kalitate arduradun eta EHUKo pediatriako irakasle den Santi Mintegi jaunak hartu gaitu, Gurutzetako Ospitaleko bere bulegoan. Pediatriako Larrialdietan dauka bere lanerako txokoa, aktibitate eta lankideengandik gertu. Bulegoa txikia da, estua, paperez gainezka, eta paretetan Bostonen eta Philadelphian izandako nazioarteko biltzarretako posterrek erakusten dute argi eta garbi bertan aktibitateak ez duela atsedunik. Izan ere, irrikaz bizi du lanbidea Santik, eta antzematen zaio zerbitzuaz jarduten duenean.

Mintegiri kalitatean, ikerkuntzan zein medikuntza alorretan elkarlanean aritzea gustatzen zaio

eta RISEUP-SPERG ikerkuntza sarearen koordinatzailea da Estatuan. “Gurutzetako Ospitaleko Pediatriako Larrialdiak sekulako jauzia egin du azken urteotan kalitatearen arloan. Osakidetzak benetan sinistu du hobekuntza prozesuetan eta apustu serioa egin du”, adierazi digu Mintegik. Emaitza bistakoa da: ondo egituraturako lan taldea, giro ona, zerbitzuaren balorazio bikaina eta ikerkuntza arloan onenen ahotan. “Pozik gauden egiten ari garekin eta etorkizunari begira ere profesional bikainak ate joka ditugu”, gaineratu du harro Mintegik.

Medikuntza Basurtun ikasi zuen eta 1987tik 1991ra Barruko Mediku Egoiliar (BAME) izan zen Gurutzetan. Orduetik hona Guru-

tzetan aritu da, “zazpi hilabeteko egonaldi labur pare bat egin nituen Usurbilen eta Kantabrian”. 2004tik aurrera kalitate eta ikerkuntza arduradun gisa ari da, “beti haurrekin, beti pediatria lanetan”.

### KALITATEA ZERBITZUAN

“Nire lagun batek dio ortodoxiaren zaindaria naizela Pediatriako Larrialdi Zerbitzuan, eta nolabait arrazoia dauka. Gauzak parametro batzuen barruan ondo egiten direla ziurtatu behar dut. Beti umearen eta familiaren mesede eta tratu onerako. Haurraren bizi kalitatea hobetzea da gure helburua eta erronka hori ezin dugu ahaztu”. Kalitatearen prozesuan egin beharrekoa letra handiz idatzita daukate zerbitzuko hamabost medikuek. Eta baita zerbitzua osatzen duten gainerako profesionalak ere, Barruko Mediku Egoki-larrek, erizainek, laguntzaileek, garbitasuneko langileek... eta taldekide guztiek. “Ume bat gure zerbitzuan artatzen dugunean, prozesu guztiak oso ondo ordenatuta egon behar dira eta niri dagokit prozesu horiek guztiak zaindu eta kalitatezko zerbitzua bermatzea”. Egon daitezkeen gorabehera guztiak aztertzeke kalitate batzordea daukagu Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuan. Arazorik sortuz gero, batzorde hori da azken erantzulea. “Guretzat oso kezagarria izango litzateke egunkarietan zerbitzua gainezka dagoela azaltzea, horrek erakutsiko lukeelako ez dugula asmatu prozesuan”. Zorionez, ordea, Gurutzetako Pediatriako Larrialdietako Zerbitzua oso osasun ona dauka, erreferentea da Euskadin zein Euskaditik kanpo bertan eskaintzen duten zerbitzuagatik.

### NAZIOARTEKO SAREETAN LANEAN

Kalitate prozesuen helburua da umearen bizi kalitatea hobetzea, baina,aldi berean, lesio edo gaitasunen diagnostiko azkarra egitea ere ezinbestekoa da zerbitzuko profesionalen aburuz. “Ezin dugu zauriturik edo gaixorik datozen haur baten egoera larriagotu. Hori argi eta garbi eduki behar dugu guztiok eta ezinbestekoa da



**AKTIBITATE** handia dago Gurutzetako Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuan. Urtero 63 mila haur artatzen dituzte eta horietatik %7 ospitaleratu egiten dituzte.

guretzat”. Kalitatea ezartzea ei da hobetzeko bidea, baina horretarako ezagutza ezinbestekoa dela deritzo Mintegik. Horren haritik, Gurutzetako Larrialdietako Pediatriako Zerbitzua kanpora begira dagoen erakundea da, era aktiboan eta parte-hartzailean. “Ezagutza ezinbestekoa da eta asko bidaiatu beharra dago beste toki batzuetan zer egiten duten ikus-teko. Kalitatezko prozesu horiek gurera ekar ditzakegun aztertu behar dugu. Asko irakurri behar da, eta beste batzuek egiten duena gurera egokitu”. Oro har, pediatriak onartu du hoberenek egiten dutena aintzat hartu behar dutela, eta horretan dihardute etengabe hobetzen, kanpora bidaiatzen, biltzarretan eta nazioarteko ikerketa sareetan parte-hartzen. “Gizartea dinamikoa da eta gure lanak ere horrelakoa behar du izan”.

Azken urteotan aldaketa dezentente egin dituzte Gurutzetako Pediatriako Larrialdietan. Egokitzapen batzuk medikuntza arlokoak izan badira ere, beste arlo batzuetan ere aldaketak egin dira: batez ere, komunikazio prozesua, zerbitzuko arkitektura, behatokia unitatea, azpiegituren hobekuntza, protokoloa... “Arlo horietan geneukan hobetu beharra eta

horretan dihardugu”. Esaterako, hiru arreta gelatan telebistak jarri dituzte eta harrez geroztik igarri dute haurrak lasaiago daudela, eta baita medikuak, erizainak eta gurasoak ere. “Lasaiago eta erosoago egonda, guztiok hobeto lan egin dezakegu”.

Era berean, Gurutzetako ospitaleko aipatu zerbitzuan, zauriak osatzeko gelan, gurasoak medikuekin egoten dira. “Hori ere pausu garrantzitsua izan da”. Etengabe hobekuntzan oinarritzen dira aldaketok, eta emaitzak, oraingoz, pozgarriak dira.

### AMERIKETAKO ESTATU BATUEI BEGIRA

Ameriketako Estatu Batuetako profesional eta zerbitzuei begira daudela onartzen dute Gurutzetan. Izan ere, zerbitzuaren funtzionamenduaren zenbait alor handik inportatu dituzte. Esaterako, AEBetan ospitaletako zerbitzuetan komunikazio arduradunak edo sailkapen arduradunak dauzkate. “Orain gure zerbitzuan baditugu komunikazio arduraduna, larrialdietako taldearekin harremanak izango dituen arduraduna, analgesiako arduraduna, ikerkuntzako arduraduna, BAMerekin harremana bideratzeko arduraduna...



eta aldea itzela da". Osakidetza enpresa erraldoi bat da, helburu orokor batzuk dituen eta asmo horiek inlerokatu dute estrategia Pediatriako Larrialdietan. Helburu horietako bat kalitatea da, eta beste bat Ikerkuntza. "Erakundearen estrategia da ikerketa alorra indartzea, sustatzea, bultzatzea eta garatzea, eta arlo horretan ere erabat lerokatu da dihardugu".

Santi Mintegirentzat, arratoia- ren burua edo lehoiaren buztana izan daiteke Gurutzetako Pedia- triako Larrialdietako Zerbitzua, "baina une honetan, uste dut lehoiaren solomoa garela. Asko mugitzen gara nazioartean, lan handia egin dugu ikerkuntzan eta hobera egin dugu". European, Ame- riketako Estatu Batuetan, Hego Amerikan... etengabe dihardute batetik bestera, onenen artean, eta horrek zerbitzuari sekulako bul- tzada eman dio.

Esaterako, urtero zerbitzuan diharduen Barruko Mediku Egoi- liar batek Cincinnatiara joateko aukera izaten du, hilabeteko prak- tikak egitera munduko pediatriako larrialdietako zerbitzu onenean. "Haiekin ere elkarlanean dihardu- gu era aktiboan eta sekulako au- rrerakuntza eskaini digute. Anto- lakuntzan gure aurretik daude eta

asko ikasi dugu azken urteotan". Boston, Philadelphia, Cincinnati (Ohio)... Ospitale oso garrantzi- tsuetako profesionalekin harre- man estua dute eta ikerkuntzan tinko ari dira, European beste inor ez bezala.

**“Boston, Philadelphia, Cincinnati (Ohio)... ospitale oso garrantzi- tsuetako profesionalekin harreman estua dute Gurutzetakoek eta iker- kuntzan tinko ari dira, European beste inor ez bezala.**

Besteak beste, arlo horretan 40 lagun baino gehiago ari dira lanean gaur egun. Era berean, mar- txoan inauguratu berri da BioGu- rutzeta, ikerketa arloa bultzatzeko asmoz. "Ikerkuntzan aitzindariak izan gara, oso arraroa zelako Eu- ropan pediatriako larrialdietan ikerketa lerroak bultzatzea eta gu beti ahalegindu gara horretan. La- borategian, genetikako ikerketak egitea ohikoa bada ere, gurean ez da hain normala". BioGurutzetan


gela bat izango dute Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuek eta hor- rek oraindik gehiago bultzatuko du ikerketa estrategia.

#### IKERKUNTZA LERROAK

Pediatriako Larrialdietako Zerbi- tzuak identifikatuta dauzka ikerke- ta lerro zehatzak. Gaur egun, bost ikerketa lerro nagusitan dihardute lanean. Aurrenekoa sukarra da. Egungo kontsulta arrazoi nagu- siena da sukarrarena, eta kasu horien guztien artean benetan la- rriak izan daitezkeenak identifika- tu nahi dituzte. "Horrenbeste ume datozenean, nola jakin nork dau- kan arazo larria? Horixe ikertzen ari gara eta nazioartean errekonozimendu handia jaso dugu". Bigarren lan lerroa asmaren la- rrialdietako zerbitzua da. Asma izaten da urgentzia mediko in- portanteena, sarrien gertatzen dena, eta jakin nahi dute zer egin dezaketen asmatikoen bizitza ka- litatea hobetzeko. Intoxikazioa hi- rugarren lan lerroa da. "Behaketa toxikologiko bat zuzentzen dugu Estatu mailan. Eta mundu mai- lan sortuko den ikerkuntza sarean ere egongo gara". Gaur egun, 45 ospitaleko sare bat bultzatzen du Gurutzetako zerbitzuak intoxika- zioen arloan. Laugarren lan lerroa

#### LAN TALDE

sendoa osatzen dute Pediatriako Larrialdietakoek. Medikuek, eri- zainek, lagunt- zailuek... guztiek egiten dute lan helburu berbera- rekin: "Haurraren bizi kalitatea hobetzea".



analgesia eta lasaigarriekin lotuta dago, eta bosgarrena, berriz, antolakuntzarekin lotuta. “Nola antolatu behar dugu zerbitzua? Hona-ko hau ez da ikerkuntza medikua, baina besteak bezain garrantzitsua da. Eta geu izan gara lehenak hori ikertzen”.

“Ikerkuntzan aitzindariak izan gara, oso arraroa zelako European pediatría arloko larrialdietan ikerketa lerroak bultzatzea eta gu ahalegintzen gara horretan. Laborategian, genetikako ikerketa egitea ohikoa bada ere, gurean ez da hain normala”.

Argitalpenetan ere puntako lana egin du pediatriako larrialdietako taldeak. Aurreneko lana 1990ean argitaratu zuten, eta 2003an aipatu zuten lehen aldiz ikerketa hura hedabide garrantzitsuenetan. “Gerora, iraultza bat izan da eta 2007an behin eta berriz aipatu gintuzten”. Mintegiren esanetan, 2012an bigarren iraultza egingo da. “Europa osoan inork ez

du guk Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuetan daukagun curriculum argitalpenei dagokienez. Aintzat hartzen gaituzte. Ospitale eta profesional ospetsuenek aipatzen gaituztenean konturatzen gara gure lanak jarraitzaile asko dituela”.

#### ESPERIENTZIA EUSKADIN PARTEKATZEA

Atzerrian jasotako ezagutza, ikerkuntzan oinarritutakoa eta hobekuntza prozesuetan gaineratutakoa Osakidetzaren sarera hedatu gura dute. “Izan ere, Osakidetzaren babesari esker daukagu kalitate arduraduna, bestela guztiok haurrak artatzen egongo ginatke eta ezingo genuke hobetu beste hainbat arlotan”. Hori aintzat hartuta, beste erronka estrategiko bat da Donostia Ospitalekoekin edo Basurtukoekin elkartzea eta ezagutza partekatzea. “Izan ere, Osakidetzak lanerako protokolo berbera ezarri nahi du, Gurutzetan, Donostian edo Basurtun”. Santi Mintegik adierazi digunaren arabera, hori bideratzeko dagoneko elkartzeko hasiak dira Basurtukoekin. Bilera horietan ezagutza partekatzeaz gain, prozesuak ere finkatu eta bateratuko dituzte. Horrekin guztiarekin etorkizunari baikortasunez begiratzen diote Gurutzetatik.

**SANTI MINGE**  
erdian, beste bi medikurekin batera. Mintegi da kalitateko arduraduna Gurutzetako Pediatriako Larrialdietako Zerbitzuan.



## URGENCIAS DE PEDIATRÍA, MEJORANDO DÍA A DÍA

Quince médicos, más de 40 médicos internos residentes, enfermeras, auxiliares, responsables de limpieza... un equipo humano bien compactado y multidisciplinar conforma el Servicio de Urgencias de Pediatría del Hospital de Cruces. Es un servicio referente en el Estado y a nivel Europeo, con una red de relaciones con importantes hospitales de EEUU, donde la investigación y la mejora continua en los procesos de calidad es una constante. El Servicio de Urgencias de Pediatría atiende cada año más de 63 mil casos, de los cuáles el 7% ingresa en planta. La causa más común de consulta en urgencias suele ser la fiebre, con más de 10 mil casos por año. Otro de los problemas que mayor atención requiere es el asma, con miles de casos anualmente. En el ámbito de la investigación el equipo del Hospital de Cruces coordina la red de investigación RISeuP-SPERG del Estado y de Europa. Otra de las líneas de investigación, la relacionada con la organización interna, tiene importantes redes en Philadelphia, Boston y Cincinnati.



**Mercedes Petralanda Aburto**

*POU osagilea / Prebentzio eta Laneko Osasuneko Oinarrizko Unitateko osagilea  
Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea*

Itzulpena: Juan Elorriaga  
*Euskara eta Laneko Arriskuen Prebentzioko teknikaria*

# OSAKIDETZAKO LANEKO OSASUNA 2012AN: 18001 OHSAS ZIURTAGIRIA

1993an Osakidetzak lehen aldiz jorratu zuen Laneko Osasuna, sindikatuen eskariaren eta Giza Baliabideetako Zuzendaritzaren sentsibilizazioaren ondorioz. Orduan, garai hartako Laneko Osasunerako Unitateak sortu ziren, eta, sindikatuekin hitzartutakoaren arabera, sarean zehar hedatu ziren. Hain zuzen ere, Osakidetza-ko zerbitzu erakunde guztietara zabaldu ziren, langile sanitario eta administrazio ekipo espezifikoen bitartez. Eta orduko enpresako ohiko zerbitzu medikoak baino haratago zihoan asmo handiagoko proposamen orokorragoa zuten. Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, arduradunen eta langileen artean apurka-apurka ezartzeko epealdi luzea igaro ondoren, 2003an Osakidetza-ko Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema ezarri zen. Hasiera-hasieratik, kudeaketa sistema horretan argi eta garbi zegoen prebentzioa Osakidetza-ko kudeaketa arlo guztietan ezarri beharra zegoela, 1997ko Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean zehaztutakoaren arabera. Edonola ere, kontuan hartuta lantokiak sakabanatuta daudela, erakunde handi-handia dela eta sistemaren erabilgarritasunarekiko “interes falta” zuten zuzendari asko zeudela, “aldaketarako nolabaiteko erresistentzia” sortu zen zenbait esparrutan.

Alde horretatik, 2009an Osakidetza-ko Zuzendaritza Nagusiak funtsezko tresna ezarri zuen, Osakidetza-ko zerbitzu erakundeetan laneko osasuna eta segurtasuna arrakastaz kudeatzen laguntzeko: OHSAS 18001:2007 Araua, hain zuzen ere. Tresna hori Osakidetza-ko zerbitzu erakunde

---

*2009an Osakidetza-ko Zuzendaritza Nagusiak funtsezko tresna ezarri zuen, Osakidetza-ko zerbitzu erakundeetan laneko osasuna eta segurtasuna arrakastaz kudeatzen laguntzeko: OHSAS 18001:2007 Araua, hain zuzen ere.*

---

askotan ezarri dute, eta urtero-urtero ikuskatzen dituzte barruko nahiz kanpoko auditorien bidez. Besteak beste, hementxe dago ezarrita: Galdakao-Usansoloko Ospitalea, San Eloy Ospitalea, Bidasoako ESI, Goierri-Urola Garaiko ESI, Zamudioko Ospitale Psikiatrikoa, Ezkerraldea-Enkarterri Eskualdea, Uribeko Eskualdea eta Bilboko Eskualdea. Honako hauexetan, ordea, ez dute oraindik ezarri: Donostiako Unibertsitate Ospitalea, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Santa Marina Ospitalea, Zaldibarko eta Bermeoko ospitale psikiatrikoak, Barrualdeko Eskualdea, Arabako Unibertsitate Ospitalea, Arabako Eskualdea, Debagoieneko ESI, Debabarreneko ESI eta Gipuzkoako Eskualdea.

Sistema ezarri duten zerbitzu erakundeetan, arlo horretan lan egiten dugunontzat oso suspergarria izan da “beste kalitate ziurtagiri bat baino ez omen zena” oso-oso tresna eraginkorra dela egiaztatzea. Beraz, horri esker, “ezer ez egiteko” joera hautsi ahal izan da hainbat arlotan. Horrez gain, zerbitzu erakundeetako zuzendariak, Prebentzio Sistemako kideak, Mantentze lanetako Zerbitzuak, Kudeaketa Ekonomikorako Zerbitzuak eta sindikatuak askoz gusturago gaude, prozesu guztiak sistematizatzea behartzean errentagarritasun handiagoa ateratu diegulako eta ez geneukan gardentasuna lortu ahal izan dugulako. Hori dela eta, langileek eta euren ordezkariak antzeman egin dute gardentasuna handiagoa dela eta euren arriskuak modu sistematizatuagoan kudeatzen direla. Zorionak Osakidetza-ri. Era berean, lan arau hori Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan ezartzeko eskatu nahi nieke oraindik ere zalantzak dituzten guztiei.

---

*Lan arau hori Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloan ezartzeko eskatu nahi nieke oraindik ere zalantzak dituzten guztiei.*

---

# LEHEN MAILAKO ARRETAKO EUSKARAZKO GIDAK:

## PAZIENTEETIKIN EUSKARAZ EGITEN LAGUNTZEKO TRESNA ERABILGARRI BERRIAK

OSAKIDETZAREN EUSKARA ZERBITZUAK LEHEN MAILAKO ARRETAKO FAMILIA MEDIKUNTZA, PEDIATRIA ETA HARRERA ZERBITZUETAKO EUSKARAZKO GIDALIBURUAK ARGITARATU DITU BERRIKI. LAN EREMU HORIETAKO OHIKO ELKARRIZKETAK, **ESAKUNEAK** ETA HIZTEGIA LIBURUXKA BANATAN BILDURIK, PAZIENTEETIKIN EUSKARAZ ARITZEA ERRAZTEKO BESTE TRESNA BAT JARRI DUTE PROFESIONALEN ESKU.

Azken hamarkadotan bai euskararen ezagutzak bai erabilerak gora egin badute ere, begi-bistan da ezagutza eta erabilera oso proportzio ezberdinean ari direla hazten. Jende askok euskara ikasi bai, baina ingurune erdaldunagatik, segurtasun faltagatik edota hizkuntz ohiturak aldatzeko eragozpenengatik, ahal baino gutxiagotan hitz egiten dute euskaraz.

Osakidetzan ere euskaraz dakiten profesional ugari erdaraz zuzentzen zaizkie paziente eta erabiltzaileei. Eta zergatiaz galdetuz gero, eredurik ez izatea eta lan arloko hiztegia eta esapideak behar bezala ez jakitea aipatzen dituzte gehienik.

Lehen Mailako Arretako euskarazko gidek gabezia horiek gaintitzen laguntzea dute helburu, hots, Medikuntza Orokorrean, Pediatria eta Harrera lekuetan pazienteekin gehien erabiltzen diren esapide eta hitzen adibideak ematea, herritarrekin euskaraz seguruago jardutea errazteko. Helburu **xumea** da, beraz, eta, euskaraz aise egiten duten langileak baino areago, euskaraz guztiz trebatuta ez dauden profesionalak dituzte jomugan.

### PROFESIONALEN AZALPENAK ETA HIZTEGIA DIRA GIDETAKO ATAL NAGUSIAK

Gidaliburuak bina atal nagusi daukate: elkarrizketak eta hiztegia. Elkarriketen atalean, herritarrek sarriren egiten dituzten galderekin batera Osakidetzako profesionalen azalpen, aholku eta gomendio sortak jasotzen dira, enplegatu elebidunek ohiko egoera komunikatiboei buruzko eredu erreal

eta ulerterrazak izan ditzaten. Atal horren amaieran gramatikaren gaineko zenbait azalpen labur ere ematen dira. Hiztegiaren atalean, bestalde, laneko oinarriko hitz eta terminoen euskarazko **ordain** zuzenak ageri dira, bi azpiataletan banatuta: oinarriko hiztegia eta hiztegi espezifikoak. Hiztegiaren inguruko **jakingurak** eta zalantzak argitu ahal izango dira bertan.

Halaber, bi atal nagusi horiez gain, bestelako atal interesgarri batzuk ere badira gidetan: Osakidetzaren 67/2003 Dekretuak lehentasunezko unitateentzat ezarritako hizkuntza-irizpideak, komunikazioa ulergarriagoa egiteko gomendioak edo material lagungarriaren zerrenda.

### ZERBITZU ERAKUNDEEN ESKAERA

Euskarazko gidaliburuok argitaratzea Osakidetzaren Euskara Planaren ebaluazio partzialaren ondorioz planteatutako hobekuntza neurria izan zen. Hainbat zerbitzu erakundek lagungarritzat jo zuten osasun arlo bakoitzean pazienteekin maiz erabiltzen diren esaldi eta terminoen bildumak osatzea, enplegatu elebidunei zalantzak eta beldurrak uxatzeko eredu onak eskaintze aldera. Euskarazko trebakuntzarako material baliotsua izango zen gainera.

### HASTEKO, LEHEN MAILAKO ARRETA

Euskara Planeko lehentasun maileri jarraituta, lehenbizi Lehen Mailako Arretako hiru gida **plazaratzea** erabaki zen. Medikuntza Orokorra, Pediatria eta Harrera zerbitzuak aukeratu ziren, gerora osasun eremu gehiagotako gidak argitaratzeko asmoz.

**Jende askok euskara ikasi bai, baina ingurune erdaldunagatik, segurtasun faltagatik edota hizkuntz ohiturak aldatzeko eragozpenengatik, ahal baino gutxiagotan hitz egiten dute euskaraz.**

Pazienteak gastroenteritisaren sintomak ditu	Gastroenteritisa dutenak
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bi egun daramatzat beherakoarekin, eta oso ahul. Bart sukar pixka bat ere izan dut.</li> <li>• Beherako eta gorakoekin nabil atzo goizetik. Ez dakit zerbait kaltegarririk jan ote dudana.</li> <li>• Gau osoa eman dut sukarrarekin, botaka eta erdi zorabiatuak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehenengo egunean besterik ez duzu hartu bota itzazu limoi-zukaz azukrea. Edan ezazu.</li> <li>• Likido ugari hartu batek 2 edo 4 litro ur.</li> <li>• Sukarra kentzeko, azukre bat har dezakezu.</li> <li>• Bigarren egunetik aurrera dieta lehorra egitea oinasko edo arrain egitea urdaiazpikoa, tortilla frida, sagarra, irasagarria...</li> <li>• Ez da gomendagarria hartzea, ezta ogirik ere.</li> </ul>

2.7 Probak/analisiak/ebakuntzak		
GAZTELANIAZ	EUSKARAZ	GAZTELANIAZ
biopsia	biopsia	mamografía
cesárea	zesarea	operación
colonoscopia	kolonoskopia	prueba cutánea
cura	sendaketa	prueba de alergia
ecografía	ekografia	prueba de esfuerzo
electrocardiograma	elektrokardiograma	prueba del azúcar
endoscópia	endoskopia	punción
escáner	eskaner	radiografía
espirometría	espirometria	raspado
exploración	miaketa/azterketa	resonancia magnética
extracción de sangre	odol-ateratze	sutura
gastroscopia	gastroskopia	tomografía
impedanciometría	inpediantziometria	transfusión
inyectable	injektagarri	trasplante
laparoscopia	laparoskopia	



**Zerbitzu erakundeek lagungarritzat jo zuten osasun arlo bakoitzean pazienteekin maiz erabiltzen diren esaldi eta terminoen bildumak osatzea, enplegatu elebidunei zalantzak eta beldurak uxatzeko eredu onak eskaintze aldera.**

#### OSAKIDETZAKO PROFESIOALEN LAGUNTZAZ ATONDUAK

Gidaliburuen sortze eta diseinu lanak Elhuyar Aholkularitzari agindu zitzaizkion. Langintza horretan, berriz, Osakidetza zenbait enplegarekin elkarrekin beharra izan zuten, pazienteekiko harreman komunikatiborik arruntenak identifikatu eta gehien erabiltzen diren esakune, berba eta agiriak bildu eta aztertzearen. Bilera horietatik atera dira gidaliburuetako eduki gehientsuenak.

#### ORAIN, LAN ARLOKO PROFESIOALEN ESKU

Behin gida bakoitza bere lan arloko langile guztiei banatuta, Osakidetza profesional euskaldunek asistentzia lana ele bitan egiteko tresna baliagarria eskuratuko dute, **ezbairik gabe** pazienteekiko komunikazioa eta konfiantza hobetzeko xedean lagungarri suertatuko zaiena.

**Esakuneak:** *Dichos, expresiones, locuciones.*

**Ezbairik gabe:** *Sin duda.*

**Jakingura:** *Curiosidad, ganas de saber.*

**Ordaina:** *Equivalente, sinónimo.*

**Plazaratu:** *Publicar.*

**Xumea:** *Modesto, sencillo, humilde.*

#### Lehen Mailako gomendioak

... likidoz osaturiko dieta  
... behar. Litro bat uretan  
... gata, bikarbonatoa eta  
... pixkanaka, trago txikietan.  
... behar duzu. Pertsona heldu  
... er har ditzake.

... spirina edo antitermikoren

... rera, goragalerik ez baduzu,

... komeni da: arroz egosia,

... osia, xerra frijitua, Yorkeko

... rantsesa, banana, azenarioa,

... ria esnerik eta esnekirik

... ta galletarik ere.

#### EUSKARAZ

mamografia
operazio/ebakuntza
larruazaleko proba
alergia-proba
esfortzu-proba
azukrearen proba
puntzio
erradiografia
arraspatze
erresonantzia magnetiko
jostura
tomografia
transfusio
transplante

# AFAGI ELKARTEA, ALZHEIMERRA EDO DEMENTZIAK DITUZTENEN SENITARTEKOEI LAGUNTZA EMATEKO ELKARTEA

## GAIXOARI LAGUNTZEKO, ZAINZAILEA ZAINTZA EZINBESTEKOA DA

DONOSTIAN SORTU ZUTEN AFAGI ELKARTEA 1991N. SANTA KATALINAKO LOKAL TXIKI BATEAN HASI ZIREN LANEAN, ETA GAUR EGUN RESURRECCION MARIA DE AZKUE KALEAN DAUDE, UDALAREN LOKAL BATEAN. ELKARTEAK 97 BOLUNTARIO ETA 965 BAZKIDE DITU. KOLDO AULESTIA PRESIDENTEAK ETA MARISA ORTIGOSA KUDEAKETA ZUZENDARIAK ELKARTEAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZKIGUTE.



Afagiren helburua da alzheimerra edo beste demenzia batzuk dituztenei eta horien familiartekoei laguntzea Gipuzkoan. 1991n hasi ziren lanean; hain zuzen, 20 urte bete zituzten joan zen azaroaren 19an. Donostia aldean hasi ziren lehenengo, eta gaur egun Gipuzkoa osora hedatuta daude.

Orain dela 20 urte hasi ziren demenzia eta buruko gaixotasunen gainean hitz egiten. Gaur egun oraindik ere demenziez hitz egitea tabua izaten da familia askotan. Horrela azaldu du Koldo Aulestia Afagiko presidentea: “Etxean mahaiko elkarrizketetan sekula ez dugu nahi izaten gaixotasun horietaz hitz egin eta gizartean ere kostatzen da hori. Familiei kostatzen zaie irekitzea eta gugana etortzea”. Orduko egoera eta kezak gaur egungoaren antzekoak direla

dio: “Alzheimerrek eta demenziek eragiten dute etxeko pertsona horren (senarra, emaztea, aita edo ama...) aldaketa eta ez dakizu zergatik”. Sarritan, gainerako senideek ere ez dute zainzailea ulertzen: “Zainzailea egunero 24 orduz bizi da pertsona horrekin; gainerakoek, berriz, bisita bat egitera etortzen direnez, ondo dagoela uste dute”, azaldu du Aulestia.

Afagi elkarteak iaz 650ren bat pertsona artatu zituen baina Gipuzkoan 8.000 lagunek daukate Alzheimerra. “Familiak sarritan pentsatzen du: Nik baino hobeto nork zainduko du?”. Kontuan izan behar da pertsona hori aldatu egin dela, ez dela lehenengo eta familiartekoak ere prestatu beharra daukala egoerarekin bizitzan aurrera egiteko. “Ez baduzu onartzen familian zerbait aldatu dela, zaila

### ESTIMULAZIO KOGNITIBOA

lantzeko tailerrak egiten dituzte egunero, lehenengo fasean dauden gaixoen estimulazioa eta gaitasunak lantzeko.

izango zaizu pertsona horri babesa ematea. Horren aurka ezin da ezer egin. Lehenengo, onartu egin behar dugu, eta, behin onartuta, errazago egingo ditugu eguneroko pausoak”, dio Aulestia.

“Sarritan, gainerako senideek ere ez dute zainzailea ulertzen: zainzailea egunero 24 orduz bizi da pertsona horrekin; gainerakoek, berriz, bisita bat egitera etortzen direnez, ondo dagoela uste dute”.

### ZAINZAILEA ZAINTZA

Horrelako elkarten lana zainzailea zaintzea ere izaten da. “Zainzaileei laguntzea da helburu nagusia, kalitatezko bizitza bat lortzea bai gaixoarentzat bai zainzailearentzat. Izan ere, zainzaileak kalitatezko bizitarik ez badauka zaila izango da gaixoa ondo zaintzea eta gaixoari kalitatezko bizitza ematea”, azaldu du Marisa Ortigosak, Kudeaketa zuzendariak. Gipuzkoa osora hedatu da elkartearen lana: Irun, Zarautz, Tolosa, Arrasate, Ordizia eta Eibarren dauka ordezkariak. Ez dira egunero lanean egoten, astean behin bidaltzen dute profesional bana. Bestalde, boluntarioen egitura bat dago eta bailara bakoitzean boluntarioen batzorde bat osatu dute. Gaur egun lau boluntario mota daude: batzuek administrazio lanak egiten dituzte, beste batzuek kudeaketa lanak, beste batzuek jarduera zehatzak (mahaia jarri,



karia irakurri, gimnasia, dantza eta abestu egiten dute; oso ondo pasatzen dute. Afegin Oporrak ize-neko programa ere badute: Alzheimerra duen gaixoa eta bere familiarakoak hamar egunez joaten

dira Nojara bost profesionalekin. Familiarakoentzat ona izaten da beste familia batzuekin esperientziak trukatea. Gaixoei, berriz, estimulazio kognitiboa lantzen dute tailerretan.

loteria saldu eta horrelakoak) eta laugarren taldeak familiari laguntza zuzena ematen dio.

**KOLDO AULESTIA**  
elkarteko presidentea  
eta Marisa Ortigosa  
kudeaketa zuzendaria.

#### LAGUNTZA ZUZENA: FAMILIARI KONPAINIA EGITEA ETXEAN

Laguntza zuzena gaixoarekin egiteko izaten da. Boluntarioak familiari konpainia egiten dio etxean, eta horrela, ordu batzuetan familiak denbora apur bat hartzen du beste zerbaitegiteko. "Adibidez, lagun bat baldin badaukagu egoera horretan, lagun horri esatea: Joan zaitez eta neu geratuko naiz gaixoarekin", dio.

Gaur egun 97 boluntario daude Afagin, baina orain dela bi urte 32 besterik ez ziren. Bestalde, bazkidearen figura ere badago: 965en bat bazkide daude. Helburua aurtun 1.000 bazkide izatea izango da. Afegiren aurrekontuaren zati handi bat erakundeetatik dator; dirua, batez ere Aldundiak ematen du. Afagi zerbitzua erabiltzeko ez dago zertan bazkide izan, atea jotzen duen edonori laguntzen diote.

#### ESTIMULAZIO KOGNITIBOA LANTZEKO TAILERRAK

Psikoestimulazio kognitiboaren tailerra lehenengo fasean dauden gaixoentzat da. Helburua da ahal den neurrian autonomia mantentzea, eguneroko gauzak egiteko gai izan daitezen. Programa zehatza da, Mirian Barandiaran neuropsikologak egindakoa. Estimulazioa lantzen da, narriadura geldiarazteko. Egunero, esaterako, egun-

#### Zer eskaintzen du fundazioak?

Alzheimerra edo beste dementsia batzuk dituzten gaixoei eta horien familiarakoentzat zuzendutako elkarte da. Diagnostikoaren ondoren, informatzea da lehenengo premia. Afagira deitu eta hitzordua eskatu: astelehenetik ostegunera 9:00etatik 18:00etara eta ostiraletan 9:00etatik 14:00etara. Uztailean eta abuztuan udako ordutegia izaten dute: astelehenetik ostegunera 9:00etatik 15:00etara eta ostiraletan urte guztiko ordutegi bera.

#### Elkartearen datuak

AFAGI  
(Alzheimer Gipuzkoa  
Resurrección María Azkue,  
32 behea.  
20.018-Donostia.

Tlfno: 943 29 71 18  
[www.afagi.org](http://www.afagi.org)



#### ¿QUÉ ES EL ALZHEIMER?

Se trata de una enfermedad degenerativa de las células cerebrales (neuronas), de carácter progresivo y de origen aún desconocido. Se caracteriza, principalmente, por la aparición lenta de síntomas, que van a ir evolucionando a lo largo de los años. Fue el neurólogo alemán Alois Alzheimer (1864-1915), quien dio su nombre a la enfermedad. En la fase inicial del Alzheimer, se produce pérdida de memoria y desorientación temporal y/o espacial. En una segunda etapa, el enfermo pierde fluidez en el lenguaje, tiene dificultades para vestirse y necesita ayuda constante, para realizar las actividades cotidianas. En la fase avanzada, la incapacidad es profunda y el enfermo ya no es capaz de valer por sí mismo. Su personalidad experimenta alteraciones irreversibles, deja de hablar, no reconoce a sus allegados y presenta incontinencia total o parcial.



# BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOA

## HIRIKO HISTORIAREN BILAKAERA ETA IZAERAREN ERANTZUNAK EMATEN DITUEN GUNEA

BILBOKO ITSASADARRA ITSAS MUSEOAK BEDERATZI URTE BETEKO DITU LASTER, ETA APALTASUNEZ ETA ZARATA TXIKIA ATERATA LEKU NABARMENA LORTU DU EUSKAL HERRIKO MUSEOEN ARTEAN. 2011N IA 57.000 BISITARI IZAN ZITUEN ETA GORANZKO JOERA DU. BILBO IZAN DENA ETA GAUR EGUN DENA ULERTZEKO ITSASADARRAK IZAN DUEN GARRANTZIA EZ AHAZTEA DA MUSEOAREN HELBURUA.

Ez da kasualitatea Bilboko Itsasdarra Itsas Museoa Ramon de la Sota kaian, hain justu Euskalduna Ontziola egon zen leku berean, kokatuta egotea. 1900. urtetik 1987ra bitartean garrantzia handiko ontziola erraldoia egon zen bertan, eta horren aurretik Espainiako Estatuan izan diren dike lehor zibil zaharrenak. Itsasadarrak oso eragin garrantzitsua izan du Bilboren bilakaeran, eta askok ez dute hori ahaztu nahi. Horregatik, 1996an hainbat hiritarrek Bilboko Itsasadarraren garrantzia errebindikatzeko fundazioa eratu zuten, eta 2003an museoa zabaltzea lortu zuten.

### FUNDAZIOA

1996an hainbat hiritarrek Bilboko Itsasadarraren garrantzia errebindikatzeko fundazioa eratu zuten, eta 2003an museoa zabaltzea lortu zuten.

### AIRE LIBREAN ERE ASKO IKUSTEKO

Euskalduna Jauregitik oso hurbil kokatuta dago museoa, kaian bertan, eta eraikineran sartu aurretik, inguruan dauden pieza interesgarri osatutako aire libreko museo bat osatzen dute, hiritar eta bisitarien arreta deitzen dutenak: Karola garabia, ponpa aretoa, dikeak, obra hondakinak jasotzeko ontzia, beste ontzi batzuk garraiatzeko atoiotzi bat eta Jose Luis Ugarte nabigatzaile getxotarrak erabilitako belaontzia, besteak beste.



Aipatutako elementu deigarriek egiten diote harrera bisitariari, eta, behin eraikineran sartuta, Bizkaiko historiaren zati handi bat aurkituko dugu. Lehenik eta behin, Bilboko Itsasadarraren tamaina ezagutu eta geure buruan kokatzeko, mapa eta aireko argazkiak, itsasadarrak berak eta Bilbok historian zehar izan duten bilakaera ezagutzeko ikus-entzunezko oso landua. Ezin ahaztu, gainera, helduen-

### AIRE LIBREAN ERE ASKO IKUSTEKO

Kaian bertan, eta eraikineran sartu aurretik, inguruan dauden pieza interesgarri osatutako aire libreko museo bat osatzen dute.

tzako eta umeentzako azalpenak ere nonahi daudela. Izan ere, iaz museoa bisitatu zuten ia 57.000 lagunetatik 10.000 ikastola, eskola eta bestelako ikastetxeetatik joandako neska-mutikoak izan ziren.

### GAZTETXOENENTZAT ESKAINTZA APARTA

Asko dira, bai, gaztetxoentzat prestatutako argibide, jolas eta tailerrak, ikasleak museoaren bisitari





gara umeentzat gauza erakargarriak prestatzen eta lortu dugula uste dut; urtero ikastetxe gehienek errepikatzen dute-eta”, azaldu du museoko zuzendaria den Jon Ruigomezek.

#### BISITARIEN KOPURU ERDIA, EUSKAL HERRIKOA

Museoak bisitari asko ditu, baina arduradunek uste dute gorantz jo beharko lukeela. “Helburuetako bat da bertara etortzen diren neska-mutikoek asteburuan gurasoak ere hona ekartzea”, diosku Ruigomezek.

Jasotako bisitei dagokionez, lau multzo bereizten dituzte: %25 bilbotarrak, %25 Euskal Herrikoak, %25 Espainiako Estatukoak eta beste horrenbeste atzerritarak. Atzerritarren artean, kopuru handiena Frantziatik badator ere, Europako iparraldekoak ere asko direla azaldu dute. “Bisitarien erdia Euskal Herrikoa da eta hori ona da, gure asmoa delako bertakoei gogoratzea itsasadarrak izan duen garrantzia”, azpimarratu du zuzendaria.

#### BILBOREN JATORRIA ETA IZAERA

Itsasadarra funtsezkoa da Bilbo eta Bizkaia ulertzeko. Hori da museoa bultzatu dutenek azpimarratu nahi duten ideia. “Itsasadarrak gauza asko eman dizkio Bilbori: hiriaren izaera gogorra, definitua eta aldi berean irekia eta baita tamaina ere”. Irekia, itsasadarrak, merkataritza eta ontziolen industriaren bitartez, Bilbo kanpora zabaltzea ekarri duelako. Eta tamaina, Bilbo hiri txikia izan arren, itsasadarraren metropoli inguruneak milioi inguruko biztanleria hartzen duelako.

Itsadarrak lana eta aberastasuna eman dizkio Bilbori. Gaur egun, berriz, goitik behera berri-tuta, turismoa erakartzeko erabiltzen dute. Museoko zuzendaria den Ruigomezek uste du positiboa dela gaur egungo erabilera, baina itsasadarraren erabilera gehiago berrasmatu behar direla.

Hori guztia ulertzeko aukera ematen du museoko ondare zabalak. Kanpokoez gain, eraikinaren barruan 1.000 pieza inguru dituz-

te. Beheko solairuan, ikus-entzuzkoez eta neska-mutikoentzat prestatutako tailerrez gain, Bilboko Kontsulatuaren falua ontziaren tamaina bereko erreplika, nabigaziorako instrumentuak, auditorioa, Abandoibarrako maketak, eskulturak eta behin-behineko erakusketen txokoak daude, besteak beste.

Lehenengo solairuan, berriz, Erdi Arotik gaur egunera arte Bilbo Handiko merkataritza portuek izan duten bilakaera azaltzen da, baita itsas zein lehorreko garraioaren ibilera ere. Izan ere, merkataritza jarduera Bilboko kontsulen, Bizkaiko jauntxoaren eta Gaztelako Erregearen esku egon da. Nabigatzaileek egindako itsas ibilbideak eta Portugaleteko zubia ere hortxe daude.

Bilbon luzaroan lan egin zuten ontziolen ere tarte berezia dute erakusketan: historia, negozioak XV. eta XVI. mendeetan izandako loraldia, lan bereizgarrienak, pasarteak... Hala nola, egurrezko ontziak egitetik metalezkoak egitera egindako transakzioa. Hori guztia irudikatzen, hainbat maketa, benetako pieza eta erreminta, planoak, egunkari ebakinak eta argazkiak bilduta daude, interesatuen gozamenarako.

Museoaren magia borobiltzeko, eraikinaren kanpoaldean dagoen Karola garabiaren pasarte jasoko dugu bertan: 50eko hamarkadan emakume bat egunero pasatzen zen itsasadarretik Ogasunera lanera joateko bidean. Eta kontatzen dutenez, Euskalduna paretik pasatzerakoan bertan lanean zeuden 3.000 langileetako askok lana utzi eta emakumeari loreak (piropoak) esaten zizkioten. Egunero gauza bera gertatzen zenez, ontziolako buruzagiak emakumeari eskaini zion taxia ordaintzea lanera joateko. Ustez merkeagoa zen taxia ordaintzea egunero ontziolaren lana gelditzea baino. Langileen artean Karola ezizenez ezaguna zen emakumearen omenez, garabietako bati izen hori jarri zioten eta zutik dago oraindik.

leialak direlako; eta ohikoa da aste barruan goizetan hara joan eta ontzi, pirata eta bestelako irudikariek lagunduta, neska-mutikoak museo barruan liluratuta ikustea. Beraiek gozatzeko moduko ikus-entzuzkoak daude, playmobil delako panpinekin egindako muntaiak dibulgatzaileak, eskulanerako tailerrak, eta bisita gehienetan, begirale eta irakasleek gidatuta, museoan zehar Altxorraren Bila jokoan ere aritzen dira. “Saiatzen

#### ITSASADARRA

“Itsasadarrak gauza asko eman dizkio Bilbori: hiriaren izaera gogorra, definitua eta aldi berean irekia eta baita tamaina ere”.

## MUSEOAREN LAGUNAK ETA AUTOFINANTZAKETA



Museoko zuzendaria den Jon Ruigomez azaldutakoaren arabera, Bilboko Itsasadarra Itsas Museoak baliabide gutxi eta autofinantzaketa maila handia dauka. Zentzu horretan, erakunde, enpresa eta elkarte askok museoko auditorioa eta Itsasoko lanbideen omenezko aretoa jardunaldiak, afariak eta bestelako ekitaldiak egiteko alokatzen dituzte. Horrek, jakina, museoari diru sarrera esanguratsuak ematen dizkio.

Museoaren egunerokoan garrantzia duten beste hainbat figura ere badaude, hala nola, patroiak, museoaren lagunak eta kolaboratzaileak. Eta badira ezezagunagoak diren beste batzuk, Museoaren Boluntarioen Taldea, esaterako. Zortzi erretiraturaz osatutako talde hori astearte eta ostegunetan biltzen da goizero, itsasadarra eta ontzigintza maite dituztelako. Eurek egiten dituzte ontzien maketak. Egunotan museoan salgai jarriko duten ontzi maketa baten planoak prestatzen ari dira, modelistek erreplika etxean egin dezaten.



**R**  
Resumen

## MUSEO MARÍTIMO RÍA DE BILBAO

PRINCIPAL EXPONENTE DEL CARACTER DE BILBAO

El Museo Marítimo Ría de Bilbao lleva casi nueve años abierto. Poco a poco y casi sin sacar ruido está haciendo una tarea encomiable. De hecho, el pasado año contó con casi 57.000 visitantes, y de ellos 10.000 fueron niños y niñas, ya que el museo cuenta con una amplia oferta para los más pequeños. Pero la fundación que lidera el museo tiene un objetivo claro: dar a conocer la importancia de la ría en la historia y el desarrollo de Bilbao y de Bizkaia. Más aún, en palabras de sus promotores, la ría ha dado a la ciudad carácter marcado y abierto, así como tamaño. El museo está compuesto por más de 1.000 piezas, incluyendo barcos, grúas y diques que se encuentran en el exterior.

La fundación que lidera el museo tiene un objetivo claro: **dar a conocer la importancia de la ría en la historia y el desarrollo de Bilbao.**



## EDURNE BIKUÑA | GIPUZKOAKO TUBERKULOSI PROGRAMAKO KASUEN KOORDINATZAILEA.

OSAKIDETZAN SEI PERTSONA DAUDE LANEAN TUBERKULOSI PROGRAMAREN BARRUAN. HORIETAKO BAT DA EDURNE BIKUÑA. GIPUZKOAKO MENDEBALDEKO EREMUAN EGITEN DU LAN, TUBERKULOSI KASUEN KOORDINATZAILE. GAIXOTASUNA **AGUDO** DIAGNOSTIKATZEAREN GARRANTZIA NABARMENDU DU.

### 1 | Zer egiten du tuberkulosi kasuen koordinatzaileak?

**Informazio iturri** guztiak aztertzen ditugu, kasu bakoitzean egin behar diren ekintzak antolatzeko eta horrela egiten direla ziurtatzeko. Kasu bat sortzen denean medikuarekin eta gaixoarekin harremanetan jartzen gara, eta kasu horren inguruan egin behar diren ekintza guztiak antolatzen ditugu.

### 2 | Tuberkulosia gaixotasun kutsakorra denez, gaixoaren ingurukoaren kontaktu azterketa egiten duzue?

Gaixoarekin harremana izan duten pertsonen proba batzuk egin behar zaizkie kutsatuta ez daudela ziurtatzeko; eta, kutsatuta baldin badaude behar diren neurriak hartu. Gaixoaren tratamendu jarraipena egiten dugu. Tuberkulosiaren kasuan tratamendua oinarritzkoa da, osorik egin behar da, bestela, ez da osatuko.

### 3 | Zaila da tratamendua ondo jarraitzea?

Tratamenduaren arazorik handiena da oso tratamendu luzea dela, gutxienez 6 hilabetekoa, eta, horregatik, nahiko gogorra da jarraipena egitea. Gaixok normalean 2 edo 3 astera fisikoki ondo sentitzen dira; hortaz, oso gogorra da gaixoentzat sintomarik gabe sei hilabetez tratamenduarekin jarraitu beharra.

### 4 | Sarritan uste dugu gaindituta dagoen gaixotasun bat dela, baina ez da horrela, ezta?

Bai, normalean jendeak uste du gaindituta dagoen gaixotasun bat dela, baina hori ez da egia. Urtero beti 160-180 kasu izaten ditugu Gipuzkoan.

### 5 | Migrazio garaian asko igo zen gaixotasun tasa? XX. mendearen bukaeran

igoera bat izan zuen gaixotasunak HIESagatik eta baita migrazio mugimenduarengatik. Migrazio garaian, jendea mugitzen hasi zenean, gaixotasuna ere mugitzen hasi zen.

### 6 | Heriotza tasa asko jaitsi da gure inguruan, baina ez hirugarren munduan.

Munduan hildako gehien sortzen duen bigarren infekzioa da tuberkulosia, HIESaren ondoren, eta, nahiz eta hildako gehienak hirugarren munduko herrialdetan izan, gurean ere, oraindik, hiltzen da jendea. **Adinekoak** izaten dira gehienak, baina jende gaztea ere hiltzen da. Hori gaixotasuna gertatzen da oso berandu diagnostikatzen delako eta ondorioz lesio larriak eragiten dituelako, edota gaixotasun birulentoa delako.

### 7 | Zeintzuk izaten dira tuberkulosiaren sintomak?

Epe luzeko katarroa izaten da, eztula, sukar gutxi ematen du, baina sukar **hamarren** batzuk bai iluntzean, nekea, pisua galtzea, gaeuz izerditzea.... Berandu diagnostikatzen diren kasuak izaten dira larrienak, eta, gainera, gehien kutsatzen dutenak.

### 8 | Garrantzitsua da sintomak agertu bezain azkar medikuarengana joatea?

Bai, diagnostiko epe hori luza-tzeak ondorioak izaten ditu. Kasu larrienak izaten dira epe luze batean sintomak izan baina kontsultara joaten ez diren pertsonenak.

**Adinekoak:** *Anciano, personas mayores.*

**Agudo:** *Rápidamente, de prisa, pronto.*

**Hamarren:** *Décimas.*

**HIES:** *SIDA.*

**Informazio iturri:** *Fuente de información.*

**Kutsakorra:** *Contagiosa, contaminante.*



“DIAGNOSTIKO EPEA LUZATZEAK ONDORIO LARRIAK IZAN DITZAKE”



“EZ DUT ZORIONTASUN ABSOLUTUAN SINISTEN, GAUZA TXIKIEKIN DISFRUTATZEN DUT”  
AITZIBER GARMENDIA

ZALDIBIARRA AURPEGI EZAGUNA DA GUTAKO ASKOREN ETXEETAN ETA ANTZOKIETAN. 13 URTEREKIN AKTORE IKASTEN HASI ZENETIK DOZENAKA ANTZEZLANETAN ETA TELESAILTAN IKUSI DUGU, BAITA ‘FINLANDIA’ SAIOA AURKEZTEN ERE. ORAIN, ANTZOKIETAN, ‘WILT’ ETA ‘KAFKA ETA PANPIN BIDAIARIA’ DEFENDATZEN IKUS DEZAKEZUE.

### Zerk ematen dizu halako bizipoza?

Oso baikorra naiz eta askotan ez naiz kontziente irribarretsu nagoela. Gauza txikiekin pozik jartzen naiz: aspaldiko lagun batekin elkartu, eguzkia irten dela, Nozilla ogitarteko bat jan... Ez dut zoriontasun absolutuan sinisten, gauza txikiekin disfrutatzen dut.

### Zer sentitu zenuen 11 urterekin bertsoa irakurtzera oholtza gainera igotzean? Agertokiak ‘harripatu’ egiten du?

Aldaketa guztiaren hasiera izan zen. Igo aurretik oso urduri nengoen, eta esan nuen ez nuela inoiz berriro egingo. Baina igo ahala gustura sentitu nintzen. Aktoreen kontraesan handiena hauxe da: igo aurreko unea gero taula gainean egotea baino askoz txarragoa izaten dela. 11 urterekin konturatu nintzen gustuko nuela sentsazio

### AKTORE SENA

Garmendiak Zuzenbide ikasketak ere eginak dituen arren, oso gaztetxotan hasi zen interpretazioa ikasten eta lan horri ekin dio hasieratik.

masokista hori. Oraindik ere estreinaldien aurretik esaten diot nire buruari: ‘Zergatik egiten dut hau?’ Baina argiak aurpegiaren ematen didanean, konturatzen naiz hauxe dela nahi dudana.

“Oraindik ere estreinaldien aurretik esaten diot nire buruari: ‘Zergatik egiten dut hau?’ Baina argiak ematen didanean, badakit hauxe dela nahi dudana”.

### Zer erakutsi zizuten 13 urterekin Beasaingo Antzerki Eskolan?

Gauza asko. Bai interpretazioari buruz eta baita sexuari buruz ere, lehenengo antzezlanen Dario Foren *Hitz egin dezagun sexuaz* izan zelako. Gaztetxoena nintzenez, Rosa Rojo irakasleak esaten zidan beti aurrera egiteko eta ez dut hori inoiz ahaztu.

### Etxean zer esan zizuten?

Beti lagundu didate. Antzerki Eskolara lehenengoz joan nintzenean **kikildu** nintzen, eta amak

bultzada eman zidan. Eta amonak oraindik egunkariko errekorre guztiak gordetzen ditu; ikaragarria da!

### Sukalde Kontuak filmeko Ikerne herri txikitik hirira bizitzera ohitu da?

(Barre). Oso bitxia izan zen. Donostiara bizitzera etorri eta justu film bat errodatzen hasi nintzen, non pertsonaiak nire antza zuen: herri txiki batetik hirira etorritakoa. Hiri batek aukera asko ditu, baina faltan botatzen dut Zaldibiako herri giroa. Hemen bizitzen hasi nintzenean kaleko jendea agurtzen nuen; pentsatuko zuten **burutik jota** nengoela (barre). Astean entseguak eta grabazioak izaten ditut eta asteburuetan ikuskizunak; gutxi joaten naiz Zaldibiara.

“Gazteleraz beti nago arre jartzen aho-keran, eta horrek, nahi gabe, beste erregistro batera eramaten nau”.

Esaldi hau zurea da: “Euskaraz antzeztzen etxeko zapatilekin bezala



**aritzen naiz; gaztelaniaz, berriz, ia kikhilduta. Badirudi bi pertsonaiak desberdinak direla”.**

*Emakumeak izarapean* lanean euskaraz oso pertsonaia freskoa eta alaia egiten nuen. Gaztelera ere grazioso zen, baina kikhilduagoa, eta ez nuen kontzienteki egiten, hizkuntzak berak eramaten ninduen erregistro horretara. Gaztelera beti nago arreta jarritzen **ahoskeran**, nahiz eta landuta

dudan. Gaztelera lehen hitza lehen mailan entzun nuen eta ez dut inoiz ahaztuko: “Vaca” esan zuten eta ez nekien zer zen. Eta gero, “Araña”. Eta nik uste nuen arraina zela!! (barre).

**Inprobisazioak zer-nolako garrantzia dauka zuretzat?**

Handia. Gustatzen zait, freskotasuna ematen duelako eta publikoak ere asko eskertzen du. Gaita-

#### **ANTZERKIA**

Telebistan lan egin badu ere, azken aldian gero eta ohikoagoa da zaldibiarra antzokietan ikustea; aurten Espainian ere arituko da.

sun hori garatu egiten da, eta egun guztiak ez dira berdinak.

**Aktore lana oso aldakorra da. Bertigoa ematen du?**

Bai. Agertokira igotzearen tentsazio masokista horren antzera, jakin-min handia pizten dizu pentsatzeak hemendik urtebetera zertan egongo zaren lanean, norekin... Ito egingo nintzateke egunero zortzi orduz leku berean eta pertsona berdinekin lan egin beharko banu, nahiz eta horrek segurtasuna eman.

**Zer proiektu daukazu orain esku artean?**

Ados konpainiaren *Wilt* eta Tanttakaren *Kafka eta panpin bidaiaria* antzezten nabil. Bestalde, Ainere eta bioi *Finlandia* saioko lana bukatu zaigu; eta nik datorren urterako antzerki aurreikuspenak ditut Euskal Herrian eta Espainian, euskaraz eta gaztelera.



**Ahoskeran:** : *Entonación, pronunciación.*

**Bizipoza:** *Aliciente, ilusión, alegría de vivir.*

**Burutik jota:** *Locola, pirado/a.*

**Kikhildu:** *Acobardarse, acoquinarse.*

**Oholtza:** *Tablado, tarima, escenario.*

**Telesaila:** : *Teleserie.*



## EUSKARAZ EGITEKO OZTOPO ETA LOTSAK GAINDITZEKO MINTZALAGUN TALDEA

IAZ DONOSTIA OSPITALEAN **EKIMEN** BERRI BAT JARRI ZUTEN MARTXAN LANGILEEK EUSKARAZ HITZ EGITEKO OZTOPOAK ETA LOTSAK GAINDITU DITZATEN. MINTZALAGUN TALDEETAN ASTERO GUTXIENEO EUSKARA MAILA DUTEN PROFESIONAL BATZUEK EUSKARAZ ASKE ARITZEKO APUSTUA EGITEN DUTE. OSO EMAITZA ONAK EMATEN ARI DA EKIMENA

Ekimenaren jatorria 2010ean Euskara Batzordeak Donostia Ospitalean antolatutako Euskararen Egunean dago. Euskarari buruz hausnarketa egiteko world cafe-a egin zuten eta ideia hau jaso zen. Pertsonaleko Zuzendaritzarekin harremanetan jarri ziren, eta esfortzua partekatzea erabaki zuten, hau da, Ospitaleak lanaldiaren ordu erdia emango zien langileei, eta horiek beste ordu erdi bat eskeiniko zuten beren denboratik, horrela, astero ordubeteko mintza saioa osatuko lukete.

Maiatzean izena emateko epea zabaldu zuten, baldintza bakarrarekin: euskararen gutxieneko ezagutza izatea, hau da, bigarren hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea edo ia horren parera egotea. 40 langilek eman zuten izena, eta irailean hamar lagunek lehen taldea abiarazi zuten. Gerora, ur-

tarrilean beste talde bat gehitu zuten. Saioak astean behin 07:30etik 08:30era eta 14:30etik 15:30era egiten dituzte, lan txandak aldatzeko orduetan; ospitaleak ordu erdi jartzen du eta beste erdia langileak bere aisialdirako denboratik, goian aipatu bezala.

Donostia Ospitaleko Euskara teknikari Ander Zuloaga eta Iñaki Villoslada dira taldeen arduradunak. Zuloaga pozik dago ekimenak jasotako **harrera** eta emaitzarekin. “Miraririk ez dugu espero, baina erabilerari bultzadaxko bat ematen ari garela uste dugu eta emaitzak denborarekin ikusiko ditugu”. Ekimena erabat boluntarioa da, eta, jendea ez nekatzeko asmoz, lau hilabeteko txandak egiten dituzte. “Hala ere, batek baino gehiagok errepikatzea erabaki du eta hori oso pozgarria da”.

### ORDUBETE.

Taldeko kideak astero ordubetez elkartzen dira euskaraz lasaitasunez hitz egiteko.

### KAZETARIEN AURREAN

Guk bazkal osteko saioan parte hartzeko aukera izan dugu. Hasieran kazetariak ikusita isilik gelditu badira ere, berehala lotsa kendu eta Amaia, Pili, Maite, Elvira, Iñake, Yolanda eta Estherrek mintzlagun taldera zertara joaten diren eta euskaraz hitz egiteko emandako **aurrerapausoak** azaldu dizkigute. Hain zuzen ere, gure aurrean lasai asko hitz egiteak erakusten du ekimenaren arrakasta. Iñake euskaldun zaharra da, baina une honetan liberatuta alfabetatzen ari da; beste batzuek, Amaiak eta Yolandak, adibidez, euskalgeian ikasitakoa praktikan jartzeko zailtasunak dituzte eta hemen aurkitu dute horretarako aukera. Zuloagak esaldi batean laburtu du askoren kezka: “Euskara ikastea zaila da, baina are zailagoa da gero hitz egiteko pausoa ematea”.

### GAIZKI MINTZATZEN DIREN USTEA

Euskara ikasten ari direnak kezkatzen dituen beste kontu bat da euskaraz gaizki egiten dutela pen-



## ANDER ZULOAGA. Euskara teknikaria.

ANDER ZULOAGA DONOSTIA OSPITALEKO EUSKARA TEKNIKARIA DA. IÑAKI VILLOSLADAK ETA BERAK GIDATZEN DITUZTE ASTEAN BIRBITAN EGITEN DITUZTEN MINTZALAGUN TALDEAK. ZULOAGA POZIK DAGO EKIMENAK ORAIN ARTE IZANDAKO HARRERAREKIN.

### Helburua da euskaraz hitz egiteko trabak kentzea, ezta?

Bai. Gure helburua ez da zehatz euskara irakastea, nahiago dugu euskaltegietan ikasten badute. Laguntzen diegu euskaraz mintzatzeko **oztopoak** kentzen: lotsa, ohitura falta... Ez genuen nahi euskaltegien antza izatea, ezta mintzamen talde aske bat izatea ere; tarteko zerbait nahi genuen: formaltasun puntu bat mantendu, baina eskola edo giro akademiko-tik aldentuta.

### Donostia Ospitalean euskararen presentzia zer nolakoa da?

2012an berriro neurtzeko asmoa dugu, Euskara Planaren ebaluazioaren baitan. Donostian

dagoen erabilera antzekoa da, langile eta erabiltzaile gehienak ingurukoak direlako. Hala ere, egia da langile asko nagusiak direla, hortaz, baliteke euskararen erabilera ingurukoa baino apur bat txikiagoa izatea, haurrak, gazteak falta dira eta.

### Zein da teknikarien papera taldean?

Iñaki Villosladak eta biok, taldea gidatzeaz gain, gaiak ekartzen ditugu; batzuetan irakurmena lantzen dugu, eta, gramatikarekin lotuta zalantzaren bat sortzen bada, azalpenak ematen ditugu. Taldera langileak motibatuta eta lasai etortzea nahi dugu; erabilerarako oztopo nahiko izaten dute eta.

tsatzea; eta euskaldun zaharrek, berriz, euskara batuari izugarritzko errespetua diotela. Hala **aitortu** dute, esaterako, Iñakek eta Maitek. Horrekin lotuta, Estherrek aitortu digu lanean saiatzen dela euskaraz egiten, baina lankideetako batzuek berari erantzuterakoan gazteleraz egiten diotela. Hala ere, ahalegina egiten jarraituko duela azaldu du.

Ahaleginak ahalegin, motibatuta eta gustura daude partaidea; eta, gainera, dagoeneko harremanetan daude Donostialdean antzeko alorretan lan egiten duten Bagera eta AEKren Ireki Atia ekimenekin, elkarlana sustatzeko.

### HITZ EGITEA.

Ekimenaren helburua da euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, ez euskara ikastea.

## MINTZALAGUNEN IRITZIA



**AMAIA BACAICOA**  
MEDIKUNTZA PREBENTIBOKO  
MEDIKUA.

Euskara ikasten nabil, baina familian eta lagun taldean ezin dut inorekin euskaraz hitz egin. Euskara hobetu eta lotsa kendu nahi dut, etorkizunean lankideekin eta pazienteekin euskaraz komunikatzeko. Astero joaten naiz. Oso giro ona dago taldean eta beste zerbitzu batzuetako lankideak ezagutu ditut.



**ESTHER OSORIO**  
ZUZENDARITZAKO IDAZKARIA.

Niretzat **aproposa** da. Euskarazko bigarren profila atera nuen, baina nire helburua da euskara hobetzea, lotsa kentzea eta askeago hitz egitea. Irailetik astero joaten naiz. Euskaraz mintzatzeko eta entzumen eta ulermen lantzeko aukera ematen dit. Izan ere, gehien kostatzen zaidana ulertzea da.

**Aitortu:** *Confesar, reconocer*  
**Aproposa:** *Adecuado, idóneo*  
**Aurrerapausoak:** *Avances, progresos.*  
**Ekimen:** *Iniciativa.*  
**Harrera:** *Acogida.*  
**Oztopoak:** *Dificultades, impedimentos, obstáculos.*



## ONDARROAKO OSASUN ZENTROA

# “HOBEEKUNTZAK EGIN NAHI DITUGU ZERBITZUAN ZEIN ARKITEKTURAN”

ONDARROAKO OSASUN ZENTROAK ONDARROA ETA BERRIATUKO HERRITARREI ESKAINTZEN DIE ZERBITZUA. BI EGOITZA EZBERDINETAN ARTATZEN DITUZTE HERRITARRAK, ONDARROAKO OSASUN ZENTROAN ETA BERRIATUKO KONTSULTAN, GUZTIRA 10.601 BIZILAGUNI.

Hizkuntza itxia eta berezia dute ondarrutarrek, euskara **bitxia**. Hala ere, izaera ez dator bat hitz egiteko erarekin, eta zabalak dira kostaldeko inguru horretan. Horrela hartu gaituzte, esku-zabal. Ondarroako Osasun Zentroa handia da, izan ere, guztira hamar milatik gorako bizilagunei eskaintzen die zerbitzua. Horietatik guztietatik 986 haur eta 8.574 adineko Ondarroan eta 1.041 Berriatuan.

Osasun Zentroan giza baliabide eta **azpiegitura** garrantzitsuak dituzte, besteak beste, familia medikuntzako sei kontsulta, pediatriako kontsulta bat, ginekologiako beste bat, erizaintzako lau, **sendaketak** egiteko gela bat, **emaginen** kontsulta, pediatriako erizaintzako kontsulta bat, larrialdietarako beste gela bat, harrera eta herritarren arre-

tarako zerbitzua Ondarroan, eta familia medikuntzako kontsulta eta sendaketak egiteko gela Berriatuan.

Lehen mailako arreta astelehenetik ostiralera eskaintzen da, goizeko zortzietatik arratsaldeko bostak arte, eta Etengabeko Zainketa Gunea astelehenetik ostiralera arratsaldeko bostetatik goizeko zortzietara, eta asteburuetan, berriz, 24 orduz.

### ZERBITZU ONA EMAN NAHIAN

Ondarroako eta Berriatuko zentroetako profesional eta langileak herritarrei ahalik eta zerbitzu egokiena eskaintzen saiatzen dira egunero. Horren harira, azken urteotan hainbat **egitasmo** jarri dituzte abian, esaterako, gaixo kronikoaren arretarako programa. Gaixo horiei etxean bertan artatzeko aukera

### LEHEN MAILAKO ARRETA KO UNITATE BURUA

da Eladino Gonzalez Silvares ondarrutarra. Hark esan digunez, Osasun Zentroa 1976an inauguratu zuten eta dagoeneko txiki eta **zaharkituta** geratu da.

eskaintzen diete orain, talde profesional egokia batekin.

Arkitekturari dagokionez, Ondarroako harrera gela berritu egingo da laster, eta beharrezkoa iruditzen zaie erizaintza gela berria prestatzea. Moldaketa eta egokitzapen horiekin guztiekin zerbitzu hobea eskaini eta ondarrutarren bizitza kalitatea hobetu nahi dute.

**Azpiegitura:** *Infraestructura.*

**Bitxia:** *Curioso, peculiar, particular.*

**Emagina:** *Comadrona, matrona.*

**Egitasmo:** *Proyecto, plan.*

**Sendaketak:** *Curas.*

**Zaharkituta:** *Caduco, obsoleto, pasado de moda.*



## "LEHENENGO HITZA EUSKARAZ ETA GERO EUREK ESKATZEN DUTENAREN ARABERA EGITEN DUGU"

ITZIAR ETXEBARRIA, GALDAKAOKO OSPITALEKO TELEFONISTA

ARRATIAKO ARANTZAZU HERRIKOA DA ITZIAR ETXEBARRIA GALDAKAOKO OSPITALEKO TELEFONISTA. SEI URTE DARAMATZA OSAKIDETZAN LANEAN. GUSTUKO DU LANA, JENDEAREKIN HITZ EGITEN ETA AHAL DEN NEURRIAN DEITZEN DUTEN HORIEI LAGUNTZEA. **TELEFONO GUNEA** EGUNEKO 24 ORDUTAN EGOTEN DENEZ ZABALIK TXANDAKA EGITEN DUTE LAN.

### Lehenengo hitza zein hizkuntza egiten duzue?

Hasi euskaraz eta gero eurek eskatzen dutenaren arabera egiten dugu, baina dakigunean. Ez dakigun hizkuntzan ezin dugu egin!

**Euskararen kalitatea hobetzeko trebakuntza ikastarorik jaso duzu?**

Ni euskaldun zaharra naiz, baina hizkuntza eskakizunak ateratzeko ikastaroak egin behar izan ditut. Nire garaian eskolan ez zen

euskararik egoten, eta horregatik ikastaroetara joan behar izan dut hizkuntza eskakizuna ateratzeko. Lanpostuari dagokion **trebakuntza** egin behar izan dut, beste batzuek bezala. Hala ere, jendearekin nire euskararen egiten dut berba, Arratiako euskararen.

**Ospitalera deitzen dutenen artean zein da euskararen erabilera portzentaia?**

Nik asko erabiltzen dut eta jendeak ere asko erabiltzen du, uste

### BIZKAIERAZ

"Ospitale honetara inguruko jende asko etortzen da, adineko pertsonak, eta beraiekin euskaraz egiten dugu, bizkaieraz".

duguna baino gehiago, batzuek ezetz esaten duten arren. Norberak euskaraz eginez gero, euskaraz erantzuten dizute, baita deitzen dutenek ere.

**Telefonoaren erantzugailu automatikoak nola ematen du aurreneko mezua?**

Ez dago erantzugailu automatikorik, telefonoa geuk, bertan gauden pertsonok, hartzen dugu. Hau 24 orduz dago zabalik. **Txandak** egiten ditugu, goizean, gauean... hau ez da ixten.

**Nolako lanaldiak izaten dituzue?**

Goizetan bi pertsona egoten gara. Ni normalean goizez egoten naiz ordezkatzen dudana pertsonak goizeko txanda daukalako. Gainerakoak txandakatu egiten dira. Zazpi orduak jarraian egiten ditugu, eta gaueko txanda hamar ordukoa izaten da.

**Zein da telefonista izatearen alde onena eta zein txarrena?**

Txarrena gaueko txanda izaten da. Oso luze egiten da, izan ere bakarrik zaude. Hortaz, hori da gogorrena. Hamar orduko txanda izaten da eta ez daukazu norekin egon; deiak jasotzen dituzu baina horiek ere gauez ez dira hainbeste izaten. **Bertako hizkuntza, bizkaiera, erabiltzen duzu ahozko komunikazioan. Garrantzitsua da hori?**

Bai, laguntzen du. Batzuei kostatzen da egiten zaie erdaraz egitea; hortaz, entzuten dutenean euskalduna zarelako beste era batera hartzen zaituzte. Nongoak diren, edo zer adin duten... horren arabera izaten da.

**Etxera zoazenean telefonoa hartzeko gogoia izaten duzu?**

Bai, berdin-berdin! Lanean ahalegintzen gara jendea ahalki eta ondoen erantzuten eta telefonoan zain egon ez dadin. Etxean, berriz, beste gauza bat da telefonoz hitz egitea.

**Aurreneko:** *ella primero/a.*  
**Erantzugailu automatiko:** *Contestador automático.*  
**Lanaldiak:** *Jornadas.*  
**Telefonogunea:** *Centralita.*  
**Trebakuntza:** *Capacitación.*  
**Txandak:** *Turnos.*



## GORLIZ OSPITALEA, TUBERKULOSI KASUAK ARTATZEKO ZERBITZUA IZATETIK ERREHABILITAZIOAN ESPEZIALIZATZERA

GORLIZ BIZKAIKO ITSASALDEKO OSPITALE ZAHARRENETARIKOA DA, HISTORIA LUZEA DUENA. 1919AN ZABALDU ZUEN MEDIKU TALDE BATEK TUBERKULOSI MOTAK ARTATZEKO HELBURUAREKIN, ETA HORRI EKIN ZIOTEN LUZAROAN. GERORA, 80KO HAMARKADAN OSAKIDETZAK OSPITALEAREN **KARGU EGIN** ETA, ZERBITZUAK MODERNIZATZEAZ GAIN, ERREHABILITAZIOAREKIN LOTUTAKO ZERBITZU UGARI GEHITU ZIZKION.

Gorlizko Erietxearen proiektua 1909an jaio zen, Enrique Areilza buru zuen mediku talde ekimentsu baten eskutik. Talde horrek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso zuen, Aldundia horretan interesatuta zegoelako.

Mediku taldeak oinarrizko ideia bat zuen buruan: itsasaldeko erietxe bat izatea, helioterapiari espezializatua izango zena, umeen birrikaz kanpoko tuberkulosi motak artatu ahal izateko. Helburu hori buruan zutela, lehenik eta behin Europako zenbait erietxetara jo zuten atzerriko lan egiteko

moduak eta eraikinak ikusi eta aztertzeraz. Eta handik ekarri zuten Gorlizko Erietxea izango zenaren eraikuntzaren eredu. Halaber, kokapen egokiaren bila, Bizkaiko hondartza batzuk bisitatu zituzten, hala nola, Somorrostro, Portugalete, Areta, Ereaga, Mundaka, Laida, Laga, Ondarroa, Lekeitio eta Gorliz. Txostengileentzat Lekeitio hondartza zen egokiena, baina, hala eta guztiz ere, Gorliz **aho batez** aukeratu zuten, proiektua kontuan hartuta lehentasuna eman baitzieten hurbiltasunari, hondartzaren luzerari, hondar

### AINTZINAKO ARGAZKIAK

Erietxea egin berrian eta umeak erietxe zaharreko oheetan.

lehorreko dunen kopuru handiari eta eraikitzeko toki zabalari. Azkenean, lanak hasi eta lehenengo harria 1911ko apirilaren 29an jarri zuten. Lanek zortzi urte iraun zuten, eta 1919ko ekainaren 29an erietxeak ateak zabaldu zituen.

Gorlizko Erietxeak, **hastapenetan**, eraikin hauek zituen bere baitan: pabilioi orokorrak (erietxea), sukaldea, lazaretoa, infektuosoen pabilioia, eta komunitatea zeritzan mojen etxea, kapera eta guzti. Mojen etxeak 650m<sup>2</sup> zituen lau solairutan banatuta, eta horri behealdeko eta lehen solairuko





kaperaren metroak gehitu behar zaizkio. Bizkaiko Foru Aldundiak osasun arretarako kontratu bat izenpetu zuen Karitatearen Alaben Mojen Institutuarekin, eta komunitate horren barne arautegia onartu zuen.

#### 1985ETIK AURRERA OSAKIDETZARENA

1985ean erietxea Osakidetzaren esku geratu zen, Gorliz Ospitalea izen berria hartuta. Data horretatik aurrera, bezeroak paziente helduak izan direnez, haien premiei behar bezala aurre egiteko zerbitzuak egokitu behar izan zituzten; hala eskatu zuen Osakidetzak. Gaur egun, ospitalizazioa eta ospitaleaz kanpoko zerbitzuak ematen dituzte eta, horretarako, beste baliabide batzuen artean, 149 ohe dituzte erabilgarri. Errehabilitazioa izan da Ospitaleak eskaini duen zerbitzu aipagarriena. Barne medikuntzako zerbitzua ere badu, eta zerbitzu horren barruan zainketa aringarrietarako unitate bat eta egonkortu eta suspertzeko beste unitate bat ere badaude.

Ospitaleak eskaintzen dituen errehabilitazio motak ere asko aldatu dira. Hain zuzen ere, orain errehabilitazio neurologikorako unitate bat eta **Kalte Zerebrale**tarako beste unitate bat daude ho-

rreren baitan. Beraz, hainbat programa eta zerbitzu eskaintzen dituzte: errehabilitazio traumatikoa eta errehabilitazio orokorra (belau-neko eta **aldakako** artroplastiak, anputazioak...). Azken horretan, prozesu zehatz batzuek ospitalizazioa behar izaten dute errehabilitazioa ondo egin ahal izateko.

#### ESKUALDEKO ERREHABILITAZIO ZERBITZUA FINKATU

Ospitaleak Uribeko eta Barrialdeko Osasun Eskualdeetako errehabilitazio zerbitzua finkatu du, eta horrela bertako biztanle guztiak **artatu** ahal ditu zenbait osasun zentrotan. Plan Estrategikoarekin jarraituz, Kalte Zerebraleko Unitatea erreferentziazko unitatea izan dadin lortu nahi

“Ospitaleak eskaintzen dituen errehabilitazio motak ere asko aldatu dira. Hain zuzen ere, orain errehabilitazio neurologikorako unitate bat eta Kalte Zerebrale tarako beste unitate bat daude horren baitan”.

#### GAUR EGUN

Gaur egungo Gorliz Ospitalea, gainean Villano lurmuturrerako bidean baserriak eta ondoan pasalekua eta Gorlizko hondartza.

dute. Eta erredura handien nahiz Biriketako Gaixotasun Butxatzaile Kronikoaren (EPOC) errehabilitazio fisikoan ere aurrera egin nahi dute zerbitzu gehiago eskainiz.

Zainketa aringarriei dagokierenez, orain eskaintzen duenari eutsi nahi dio, eta beste erakunde batzuekin lankidetzan jarraitu, hala nola, osasun eskualdeekin eta gizarte eragileekin. Era berean, egonkortzeko eta suspertzeko jarduerak ere zabaldu nahi ditu patologia anitzeko pazienteei begira, eta horrela kronikoen estrategia aztertu eta berari erantzun.

Ospitaleaz kanpoko errehabilitazioari dagokionez, zerbitzu hori ematen duten zentroak gehitu nahi ditu, eta orobat aurrera egin gura du etxeko errehabilitazioaren azterketa proiektuan.

**Aho batez:** *Unánimemente, por unanimidad.*

**Aldaka:** *Cadera.*

**Artatu:** *Atender, cuidar, asistir.*

**Hastapenetan:** *Al inicio, en sus comienzos.*

**Kalte zerebralak:** *Daños cerebrales.*

**Kargu egin:** *Hacerse cargo, encargarse.*

# TXANGO ETA BERTSOAK, ELKAR EZAGUTZEKO


LANETIK KANPOKO EKINTZEK HARREMANAK ESTUTZEN LAGUNTZEN DUTE

## TXAGORRITXUTIK MENDIRA, LANGILEAK ELKARREKIN

Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu egoitzako langile talde batek hilean behin mendi irteera antolatzen du. Horietariko bat, otsailaren 26koa, hain zuzen ere, Gesalza Añanatik Arreo lakura eta Somo eta Atalaya mendietara abiatu zen. Bi mendi horiek Arabako Mendizale Federazioaren katalogoaren barruan daude, lehenengoa 904 metrokoa eta bigarrena 907koa, hurrenez hurren.

Ibilaldian leku eta paisaia izugarriak ikusteko aukera izan zuten. Argazkian ikus daitekeen bezala, Arreoko laku **paregabea**. Gastronomiak ere ez zuen **kalerik egin**. Somoko tontorrean egindako hamaiketakoan ezin falta patata tortila eta Arabako Errioxako ardoa. Somotik Atalayarainoko bidea ez zen bat ere erraza izan: **suebaki** aldapatsu bat zeharkatu behar izan zuten Atalayako gailurrera heltzeko, eta bertan Arabako buzoi bitxienetakoa, helikopteroaren itxurakoa, aurkitu zuten.


Mendi ibilaldiren bukaeran Gesalza Añanatik pasa eta eguraldia bidelagun herri polit hura eta bere gatzaga bereziak ikusi ahal izan zituzten.



## OEEren XXII. Biltzarra

Bizitzaren medikalizazioa  
Osasun-langileak gaixotzen direnean  
Osasun-langileak eta teknologia berriak

*Bizkaiko Sendagileen Elkarteak  
Bilbo, 2012ko maiatzak 18 - 19*



**OSASUN  
LANGILEON  
ERRONKA BERRIAK**

## BERTSO-SAIO KLINIKOAK BERRIZ ERE ARRAKASTATSUAK IZAN DIRA

Martxoaren 9an, 48 pertsonen parte hartu zuten Hernaniko Goiko Lastola Sagardotegian antolatu diren Bertso Saio Klinikoetan. Ordu bete inguruko iraupenaren ondoren afaria egin zuten. Parte-hartzaileek taldeka jardun zuten, eta bertsolariek emandako **arrasto** edo datuekin zein hitzi buruz ari ziren asmatu behar izan zuten, gaixotasun bat askotan, baina bestelako hitz bat ere izan zitekeen. Horrela, bertso gai nagusiak, **hotzeria**, **hazizurria**, autopsia, ezkabia eta pip protesia izan ziren.

Irabazle eta finalistek OEEK antolatzen duen kongresurako inskripzioa irabazi zuten. Hala ere, aurrekoaz gain, irabazleek fonendoskopioa, esfigomanometroa eta Elhuyarren "Sendabidea ala iruzurbidea. Medikuntza alternatiboa proban" liburu bana ere irabazi zuten.

**Arrasto:** *Compañero de viaje.*  
**Hotzeria:** *Resfriado, constipado.*  
**Hazizurria:** *Paperas.*  
**Kale egin:** *Faltar.*  
**Paregabea:** *Excepcional.*  
**Suebaki:** *Cortafuegos.*

# SEGURA, HIRIBILDU MONUMENTALA



**HIRIBILDU DOTOREA DA SEGURA. SAN ADRIANGO BIDEAN MERKATARITZA INDARTZEKO SORTUTAKOA 1256AN. JAUREGI DOTORE, KALE BITXI, ELIZA MONUMENTAL ETA INGURU NATURAL PAREGABEZ JOSIA. TURISMOARI BEGIRA EKINTZA UGARI EGITEN DITUZTE; ERDI AROKO FERIA, LORE AZOKA, ASTE SANTUEKO PROZESIOAK... ETA URTE OSOAN BISITA GIDATUAK EGITEKO AUKERA. ARDIXARRA ETXEAN DAGO KOKATUTA TURISMO BULEGOA.**

Aste Santua igarota, Segura poliki-poliki itzuli da normaltasunera. Kataluniarrak, madrildarrak, Euskal Herriko beste zenbait tokitatzat gerturatutako turista ugari jaso dituzte, herriko prozesio bereziekin gozatzeko asmoz. Segurarrak, ordea, ohituta daude bisitariak jasotzera. Gipuzkoako Goierriko eskualdean, herri txikia izanda ere, turismoari errekurtso dezente eskaintzen dizkio Segurak aspalditik.

Turismo bulegoa Ardixarra Erdi Aroko etxean dago kokatuta, eta bertatik gestionatzen dute turismoarekin lotutako eskaintza guztia. Bisita gidatuak urte osoan egin daitezke, hori bai, aurretik ordua hitzartuta. Bisita dotoreak izaten dira, herriko jauregiak, kale eta etxeak ezagutzeko aukera eskaintzen dutenak.

## **ARDIXARRA ETXEA, TURISMO BULEGOA**

Hasteko, Erdi Aroko Familia apal baten etxea nolakoa den ikusteko aukera dago Ardixarran bertan. Egurrezko ate doto-

rea igarota, bisitariak, harritzeaz gainera, Erdi Aroko jautzia egiteko aukera izango du. Goiko solairuan, Erdi Aroko interpretazio zentroa ere badago, bakarra Euskal Herrian. Seguraren historia, herri fundazioa, Erdi Aroko lanbideak... historiak, gastronomiak eta naturak bat egiten dute Aizkorriren magalean dagoen Gipuzkoako bazter zoragarri honetan.

Lardizabal Jauregia, gaur egungo udaletxea; Arrue Jauregia, non Belengo Amaren irudiaren aurrean piztuta dagoen argitxoa. Historia bitxia da argitxoarena. Izan ere, argiak esan nahi du laster jaioko dela haur bat herrian, eta herritarrek Ama Birjinari eskatzen diote erditzea ona izan dadila; Gebara Jauregia; Zeraingo eta Oxiñako ateak; Jauregi Jauregia; Balentzegi Jauregia... Guztiak dira ikusgarriak. Maite Sagaseta, turismo bulegoko langileari esker, guk ere herria bisitatzeko aukera izan dugu.



**Dotoretu:** *Engalanar.*  
**Errementaria:** *Herrero*  
**Erreparatu:** *Fijarse, observar.*  
**Gari jole:** *Trillador.*  
**Hiribildua:** *Villa.*  
**Hiri gutuna:** *Carta puebla.*



## **ARRUE JAUREGIA**

Belengo Amaren irudiaren aurrean piztuta dagoen argitxoak esan nahi du laster jaioko dela haur bat herrian.

## **UZTAILEAN ERDI AROKO AZOKA**

Bi urtean behin Segurako herria Erdi Aroko bueltatzen da. Herria irauli egiten da eta herritarrak erabat inplikatzeko dira Azokaren antolakuntzan. Jauregi eta etxe atariak **dotoretzen** dituzte herriko **errementari**, jostun, **gari jole** eta bes-telakoek. Lanbideen erakustaldia izaten da, baina ez hori bakarrik, herriko kale eta txoko ezberdinetan jauntxoan, zaldunen, musikarien eta langileen joan-etorria etengabea izaten da. Aurten, uztailaren bigarren astean egingo da Erdi Aroko Azoka, eta dagoeneko hasi dira prestakuntza lanetan. Historiari erreparatuz gero, Segura 1256an sortu zen San Adriango bidea indartzeko eta merkataritza bultzatzeko asmoz. Gaztelako Errege Alfontso X. Jakintsuak eman zion Segurari **hiri gutuna**, batez ere leku estrategikoan zegoelako. Gaur egun, Oria goienean dagoen herriak 1.230 biztanle ditu eta Murtzo Monumental Artistiko izendatu dute.

Informazio gehiago:  
[www.seguragoierri.net](http://www.seguragoierri.net)

# VI. JOANES ETXEBERRI saria

Osakidetzaren Gipuzkoako  
zerbitzu erakundeetan  
euskararen erabilera  
sustatzeko eta zabaltzeko  
esperientzia onenarentzat

*A la mejor experiencia a favor  
del fomento, difusión y  
utilización del euskera en las  
organizaciones de servicios de  
Osakidetza en Gipuzkoa*



## OSPITALEAN LEHEN HITZA EUSKARAZ



**Osakidetza**

**DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEA**  
HOSPITAL UNIVERSITARIO DONOSTIA



Harremanetarako pertsona: Iñaki Villoslada 7360  
Komunikazio Unitatea  
[inaki.villoslada@osakidetza.net](mailto:inaki.villoslada@osakidetza.net)



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO